

IDENTIFIKATZEKO ETA SINATZEKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK ERABILTZEKO TERMINOAK
ETA BALDINTZAK

Bertsio zk.: 2.0

Data: 2018ko azaroaren 28a

© IZENPE 2018

Dokumentu hau IZENPEren jabetzakoa da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490



AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	HARREMANETARAKO DATUAK	4
3	DEFINIZIOAK	5
4	ZIURTAGIRI MOTAK, BALIDAZIO PROZEDURA ETA ERABILERA	7
5	BITARTEKO ELEKTRIKOEN ERABILERA	10
5.1	ERABILERA EGOKIAK	10
–	AUTENTIFIKATZEKO	10
–	SINATZEKO	10
5.2	BITARTEKOEN ERABILERA DEBEKATUAK	11
–	AUTENTIFIKAZIOA:	11
–	SINADURA:	11
6	KONFIANTZA MUGAK	12
7	BETEBEHARRAK	13
7.1	IZENPERENAK.	13
7.1.1	BETEBEHAR OROKORRAK	13
7.1.2	IDENTIFIKAZIO BITARTEKO ELEKTRIKOAK JAULKITZEN DITUEN ERAKUNDE GISA.	14
7.1.3	SINADURA BITARTEKO ELEKTRIKOAK JAULKITZEN DITUEN ERAKUNDE GISA.	14
7.3	ZIURTAGIRIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK	16
8	ERANTZUKIZUNAK	19
9	APLIKA DAITEZKEEN AKORDIOAK, ZIURTAPEN JARDUEREN DEKLARAZIOA ETA ZIURTAGIRI POLITIKAK	22
10	ITZULKETEN POLITIKA	22
11	DATU PERTSONALAK BABESTEA	22
12	APLIKATZEKO LEGERIA. GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK	22
12.1	Aplikatzeko araudia	22
12.2	Erreklamazioak eta auzien ebazpena.	23
13	ZIURTAPEN AGINTARITZAREN AUDITORIAK, ZIURTAPENAK ETA KONFIANTZAKO ZIGILUAK ETA ERREPOSITORIOAK	23
14	BERTSIOEN KONTROLA	24



1 SARRERA

Dokumentu honen xedea da *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SAK* (aurrerantzean, Izenpe) identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak zein termino eta baldintzatan jaulkitzen dituen deskribatzea.

Izenpe konfiantzako zerbitzuen emaille kalifikatutzat jotzen da, betiere *identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduaren — 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena*— esparruan (aurrerantzean, eIDAS).

Halakotzat, honetarako bitartekoak jaulkitzen ditu:

➤ **Identifikazioa**

Ziurtagiri elektronikoetan oinarritzen diren identifikazio-bitartekoez gain, Izenpek B@K eta B@KQ bitartekoak jaulkitzen ditu. Bitarteko horiek pertsona fisiko bat autentifikatzeko aukera emango dute erreferenziako zenbaki baten eta pasahitz baten bidez — erreferenziako zenbakia bat etorriko da erabiltzailearen NAN/AIZ zenbakiarekin—.

B@KQ bitartekoak, gainera, 16 posizioko koordinatu-joko bat gehitzen du.

➤ **Sinadura**

Sinaduraren ondorioetarako, Izenpek askotariko ziurtagiri elektronikoetan oinarritzen diren bitartekoak jaulkitzen ditu hainbat euskarritan, betiere dagokion Politika espezifikoan eta Ziurtapen-jardueren deklarazioan zehaztutako espezifikazioen arabera.

Dokumentu hau *“ETSI EN 319 411-1: Policy and security requirements for Trust Service Providers issuing certificates; Part 1: General requirements”* estandarraren B eranskineko eskakizun teknikoen arabera sortu da.

Ez ditu inondik ere ordezkatzan www.izenpe.eus webgunean erabilgarri dauden Ziurtapen-jardueren deklarazioa eta ziurtagiri-politikak.



2 HARREMANETARAKO DATUAK

Zerbitzu-emailearen izena	Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SA
Posta-helbidea:	Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz
Helbide elektronikoa	info@izenpe.com
Telefonia	902 542 542 / 945 01 62 90

3 DEFINIZIOAK

- **Identifikazio elektronikoa:** pertsona baten formatu elektronikoko identifikazio-datuak erabiltzeko prozesua. Datu horiek pertsona fisiko edo juridiko jakin bat ordezkatzeko dute, edo pertsona juridiko bat ordezkatzeko duen pertsona bat.
- **Identifikazio-elektronikoko bitartekoak:** pertsona baten identifikazio-datuak biltzen dituen unitate materiala eta/edo immateriala, lineako zerbitzuetan autentifikatzeko erabiltzen dena.
- **Autentifikazioa:** pertsona fisiko edo juridiko bat edo formatu elektronikoko datuen jatorria eta osotasuna modu elektronikoa identifikatzeko aukera ematen duen prozesu elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoa:** sinatzaileak sinatzeko erabiltzen dituen formatu elektronikoko datuak, beste datu elektronikoa batzuei erantsiak edo horiekin modu logikoan lotuak.
- **Sinadura elektronikoa aurreratua:** eIDAS erregelamenduaren 26. artikuluan aintzat hartzen diren eskakizunak betetzen dituen sinadura elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoa kalifikatua:** sinadura elektronikoa sortzeko gailu kalifikatu bidez sortzen den eta sinadura elektronikoko ziurtagiri kalifikatu batean oinarritzen den sinadura elektronikoa aurreratua.
- **Sinadura elektronikoko ziurtagiria:** zigilu bat balidatzeko datuak pertsona juridiko batekin lotzen dituen eta pertsona horren izena edo goitizena berresten duen deklarazio elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoko ziurtagiri kalifikatua:** konfiantzako zerbitzuen emaile kalifikatu batek jaulkitako sinadura elektronikoko ziurtagiria, eIDAS erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako eskakizunak betetzen dituena.
- **Konfiantzako zerbitzuen emailea:** konfiantzako zerbitzu bat edo gehiago ematen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, konfiantzako zerbitzuen emaile kalifikatu gisa zein kalifikatu gabe gisa ematen dituena.
- **Konfiantzako zerbitzuen emaile kalifikatua:** konfiantzako zerbitzu bat edo batzuk ematen dituen eta ikuskapen-organismoaren eskutik kalifikazioa lortu duen konfiantzako zerbitzuen emailea.
- **Erregistro-erakundeak:** ziurtagirien gakoak eskatzaileak, harpidedunak eta edukitzaileak identifikatzen dituzten erakundeak, ziurtagirietan jasotzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa ziurtatzen dutenak, eta ziurtagiriak jaulkitzeko, errelokatzeko eta berritzeko eskaerak balidatzen eta onartzen dituztenak.
- **Ziurtagirien erabiltzaileak.**
 - **Ziurtagiriaren eskatzailea:** ziurtagiri oro pertsona batek eskatu behar du, bere izenean edo erakunderen baten izenean.
 - **Sinatzailea:** sinadura sortzeko gailua duen pertsona, eta bere izenean edota ordezkatzeko duen pertsona fisiko edo juridikoaren izenean jarduten du.
 - **Ziurtagiriaren harpideduna:** ziurtagirian identifikatzen den pertsona fisikoa edo juridikoa.
 - **Gakoak edukitzailea:** sinadura digitaleko gakoak dituen eta horiek zaindraz arduratzen den pertsona fisikoa.
- **B@k** pertsona fisikoentzako identifikazio-bitarteko elektronikoa da, autentifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Osagai hauek ditu:



- Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin/pasaportearekin bat datorrena, eta pasahitz bat.
 - Ziurtagiri kalifikatu gabe bat, errepositorio zentralizatu batean sortu eta sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.
 - Gainera, autentifikatzeko beste faktore biometriko batzuekin osa daiteke, hala nola hatz-markarekin edo aurpegi-ezagutzearekin.
- B@kQ pertsona fisikoentzako identifikazio-bitarteko elektronikoa da, autentifikatzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Osagai hauek ditu:
- Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
 - Pasahitz bat.
 - Koordinatu-joko bat, 16 posiziokoa.
 - Sinadura elektronikoaren ziurtagiri kalifikatu bat, Izenperen errepositorio zentralizatu seguru batean sortu eta sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.
 - Gainera, autentifikatzeko beste faktore biometriko batzuekin osa daiteke, hala nola hatz-markarekin edo aurpegi-ezagutzearekin.



4 ZIURTAGIRI MOTAK, BALIDAZIO PROZEDURA ETA ERABILERA

Izenpek jaulkitako ziurtagiri mota bakoitzari dagozkion xehetasunak *Ziurtagiri-jardueren deklarazioari* gehitzen zaion *Ziurtagiri bakoitzerako politika espezifikoa*n arautzen dira.

DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	POLITIKAREN OID	eIDASen segurtatze-maila
HERRITARRA				
B@K	HSM	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5	Txikia
B@KQ	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.18.3	Funtsezkoa
Herritarraren ziurtagiria	Txartela / USB tokena (txip kriptografikoa)	QCP-n-qscd	eIDAS profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.6	Handia
			eIDAS aurreko profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.18.1	Handia
ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA				
Erakundearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.14	Funtsezkoa
	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa.	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.12	Handia
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.16	Funtsezkoa
NJG ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA				
NJG erakundearen ordezkaria	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.15	Funtsezkoa
	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa.	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.13	Handia
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.17	Funtsezkoa
PROFESIONALA				
Erakunde publikoetako	Txartela / USB tokena: txip	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1	Handia



langileak	kriptografikoa.			
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2	Funtsezkoa
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.3	Funtsezkoa
Erakunde publikoetako langileak goitzenarekin	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	Sinadura 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.1	Handia
		NCP+	Autentifikazioa 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.2	Handia
		N/A	Zifratua 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.3	Handia
Korporatibo kualifikatua	Txartela / USB tokena: txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1	Handia
	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2	Handia
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.3	Funtsezkoa
Korporatibo kualifikatu gabea	Txartela / USB tokena	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	N/A (kualifikatu gabea)
Erakunde publikoetako langileak (eIDAS aurrekoa)	Txartela / USB tokena	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.4.1	N/A
Eusko Jauriaritzako langileak (eIDAS aurrekoa)	Txartela / USB tokena	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.7.1	N/A
Korporatibo publiko aitortua (eIDAS aurrekoa)	Txartela / USB tokena	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.4.2	N/A
Korporatibo publiko aitortu gabea (eIDAS aurrekoa)	Txartela / USB tokena	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	N/A
Korporatibo pribatu aitortua (eIDAS aurrekoa)	Txartela / USB tokena	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.2.2	N/A
Korporatibo pribatu aitortu	Txartela / USB	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.2	N/A



gabea (eIDAS aurrekoa)	tokena			
ERAKUNDEAREN ZIGILUA				
Erakundearen zigilua	Edukizaitalea. Izenperen ziurtagirien edukizaitalea	QCP-I-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.11	Funtsezkoa
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.2.20	Funtsezkoa
ADMINISTRAZIOAREN ZIGILUA				
Administrazioaren zigilua	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukizaitalea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.2	Funtsezkoa
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.3	Funtsezkoa
Erdi-mailako administrazioaren zigilua (eIDAS aurrekoa)	HSM	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.4.4	N/A
ZERBITZARI SEGURUA (SSL)				
SSL DV	Softwarea	DVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.4	N/A
SSL OV	Softwarea	OVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.1	N/A
SSL EV	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.1	N/A
EGOITZA	Softwarea	OVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.3	N/A
EV EGOITZA	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.2	N/A
APLIKAZIOA				
Aplikazioa	Softwarea: Izenperen ziurtagirien edukizaitalea.	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2	N/A
KODE SINADURA				
Kode-sinadura	Txartela	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.1	N/A

5.1 ERABILERA EGOKIAK

– AUTENTIFIKATZEKO

Bitarteko elektronik horiek identifikatzeko aukera ematen dute, eta harpidedunaren edo, hala badagokio, gako-edukitzailearen autentifikazio elektronikorako erabili beharko dira, horiek onartzen dituzten administrazio publikoen aurrean.

Bitartekoa zerbitzu elektronik baten aurrean identifikatzeko erabiltzen denean, Izenpek autentifikazioaren emaitza eskainiko dio zerbitzuaz arduratzen den organismoari.

– SINATZEKO

▪ **Pertsona fisiko edo juridikoaren ziurtagiri kalifikatuak**

Sinadura eta zigilu elektronikoen ziurtagiri kalifikatuak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, autentifikazio-mezuak sinatzeko ere erabil daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen desafioak, S/MIME posta elektronikoa segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait. Sinadura digital horrek sinadura-ziurtagiriaren harpidedunaren identitatea bermatzen du.

Horrez gain, ziurtagiri horiek euskarria eman diezaiekete sinadura elektronikoa aurreratu edo kalifikatuei, horiek zein euskarritan egiten diren.

Zigilu elektronikoen ziurtagiriak administrazio publikoen esparruan besterik ez dira erabili behar, dokumentuak elektronikoki zigitatzeko.

▪ **Pertsona fisiko edo juridikoaren ziurtagiri kalifikatu gabeak**

Ziurtagiri kalifikatu gabeek ez dute modu frogagarrian bermatzen harpidedunaren eta, hala badagokio, gako pribatuaren edukitzailearen identitatea.

Sinatzeko erabiltzen bada, sinadura hori ezin izango da eskuz idatzitakoarekin parekatu.

Ziurtagiri kalifikatu gabeak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, autentifikazio-mezuak sinatzeko ere erabil daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen desafioak, S/MIME posta elektronikoa segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait.

▪ **Gailu informatikoaren ziurtagiriak**

Gailu informatikoen eragiketaz arduratzen diren erakundeei zerbitzari seguruko ziurtagiriak eta aplikazio-ziurtagiriak jaulkitzen zaizkie.

Webgunearen autentifikazio-ziurtagiriak aukera ematen dute webgune bat ziurtagiria jaulki zaion pertsona juridikoarekin lotzeko.

Egoitza elektronikoen ziurtagiriak administrazio publikoen esparruan besterik ez dira erabili behar, egoitza elektronikoa identifikatzeko.

▪ **Kode-sinaduraren ziurtagiriak**

Erakunde titularrei ematen zaizkie, software horren osagaien baten autentifikazioa eta osotasuna bermatzeko.



5.2 BITARTEKOEN ERABILERA DEBEKATUAK

- **AUTENTIFIKAZIOA:** berezkoa duten eginkizunerako eta ezarritako xederako erabili behar dira, eta ez bestelako eginkizun eta xedeetarako.
- **SINADURA:** berezkoa duten eginkizunerako eta ezarritako xederako erabili behar dira, eta ez bestelako eginkizun eta xedeetarako, eta aplikatzekoa den legeriaren arabera besterik ez.

Izenpek jaulkitako ziurtagiririk ezin da erabili tramiteak erregistro-erakunde gisa egiteko.

Ziurtagiriak ez dira diseinatu egoera arriskutsuetan kontrol-ekipamendu gisara edo hutsegiteen kontrako jardueretan (hala nola instalazio nuklearren, nabigazio-sistemen edo aireko komunikazioen funtzionamenduan, edo armamentuaren kontrol-sistemetan) erabiltzeko eta ezin dira horretarako erabili edo berriz saldu, baldin eta jarduera horietan hutsegite batek zuzenean heriotza, zauri pertsonalak edo ingurumen-kalte larriak eragin baditzake.



6 KONFIANTZA MUGAK

Izenpek ez du bere ziurtagirien konfiantza-muga espezifikorik aplikatzen.

Aurreko atalean kontsulta daitezke ziurtagiri mota bakoitzaren erabilera-mugak (sinadura, zigilua, webgunea).

Izenpek, konfiantzako zerbitzu-emaile gisa betetzen duen jardueran, honako elementu hauen barne-erregistroak mantentzen ditu edo artxibatzea ziurtatzen du, modu seguruan:

- Ziurtagiri kalifikatuen bizi-zikloarekin erlazionaturako gertaera guztien ebidentzienak, jaulkitze-dataren ondorengo 15 urteetan.
- Ziurtagiri kalifikatu gabeen bizi-zikloarekin erlazionaturako gertaera guztien ebidentzienak, jaulkitze-dataren ondorengo 7 urteetan.



7 BETEBEHARRAK

7.1 IZENPERENAK.

7.1.1 BETEBEHAR OROKORRAK

Segurtasunari buruzkoak

- Sistema eta produktu fidagarriak erabiltzea, aldaketa ororen aurka babestuta daudenak eta euskarri dituzten ziurtatze-prozesuen segurtasun tekniko eta, hala badagokio, kriptografikoa bermatzen dutenak, betiere bere segurtasun-politikari jarraituz.
- Bitartekoen faltsifikazioaren aurkako neurriak hartzea eta konfidentzialtasuna bermatzea sinadura sortzeko prozesuan eta sinatzaileari prozedura seguru baten bidez entregatzean.
- Sistema fidagarriak erabiltzea ziurtagiri kalifikatuak biltegitatzeko. Sistema horiek ziurtagirien autentifikazioa egiaztatzeko aukera eman behar dute, eta baimenik gabeko pertsonak datuak alda ditzaten eragotzi. Aukera eman behar dute, halaber, sinatzaileak adierazi dituen kasuetan edo pertsonen irisgarritasuna mugatzeko eta segurtasun-baldintza horietan eragina izan dezakeen edozein aldaketa detektatzeko.
- Segurtasuna aldian behin egiaztatzea, ezarritako estandarrekin bat datorrela ziurtatzeko.
- Segurtasuna behar bezala kudeatzea, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema inplementatzeari esker, betiere ISO/IEC 27001 arauak ezarritako printzipioen arabera. Besteak beste, neurri hauek jasotzen ditu:
 - Segurtasun-gertakarien kudeaketa osoa gauzatzea, gertakari horiek detektatzea, ebaztea eta optimizatzea bermatzeko.
 - Segurtasunaren arloan interes berezia duten taldeekin harreman egokiak izatea, hala nola adituekin, segurtasun-foroekin, eta informazioaren segurtasunaren arloko elkarte profesionalekin.
 - Sistemen mantentze-lanak eta bilakaera behar bezala planifikatzea, erabiltzaileen eta bezeroen itxaropenak berme guztiekin beteko dituen zerbitzua eta errendimendu egokia ziurtatzeko.
- Ostatu emateko zerbitzuen hornitzaileei segurtasuneko araudia eta estandarrak (DBEO, ISO, ETSI, CABForum eta Izenperen segurtasun-politika) bete ditzaten galdatzea.

Langileak

- Eskainitako zerbitzuak emateko eta sinadura elektronikoaren esparruan segurtasun- eta kudeaketa-prozedura egokiak egiteko behar adinako kualifikazioa, ezaupideak eta esperientzia dituzten langileak erabiltzea.
- Segurtasuneko araudia eta estandarrak betetzea (DBEO, ISO, ETSI eta Izenperen segurtasun-politika).



Prozedura

- Identifikatzeko eta/edo sinatzeko bitartekoa jaulki eta entregatu aurretik, Izenpek ezagutzera emango ditu haren erabilerari buruzko terminoak eta baldintzak, prezioa —ezartzen denean—, erabiltzeko mugak eta, hala badagokio, Ziurtapen-jardueren deklarazioan aipatutako tresna juridiko lotesleak.
- Izenpek bere jarduera uzteko amaiera-plan bat dauka, zein baldintzatan egingo litzatekeen zehazten duena.
- Izenpek ziurtagiriaren indarraldia amaitzeari buruzko informazioa emango dio gakoan edukitzeleari, indarraldia amaitu aurretik edo aldi berean, eta ziurtagiria indarrik gabe zergatik eta noiz (eguna eta ordua) geratuko den zehatuko dio.
- Ziurtagiriei buruzko informazio publiko hori guztia Ziurtapen-jardueren deklarazioan definitutako Izenperen Argitalpen Zerbitzuan jasota dago.

7.1.2 IDENTIFIKAZIO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ERAKUNDE GISA.

- Erabiltzailea identifikatuko du, eIDASen definitutako segurtatze-mailen arabera.
- Identifikazio-datuen osagarritasuna bermatuko du.
- Erabiltzaileak identifikatzeko aukera ematen dioten elementuak dauzkala ziurtatuko du.
- Indarreko legeriak galdatutako eskakizun teknikoak eta langileei buruzkoak beteko ditu.
- Identifikazio-bitartekoa jaulki eta entregatu aurretik, ezagutzera emango ditu haren erabilerari buruzko terminoak eta baldintzak, prezioa —ezartzen denean—, erabiltzeko mugak eta tresna juridiko lotesleak.
- Izenpek ziurtagirien baliozkotasuna egiaztatzeko mekanismo publikoak eskaintzen ditu Ziurtapen-jardueren deklarazioan deskribatutako sistemen bidez.
- Izenpek autentifikazio-mekanismoak eskainiko ditu, identifikazio-mekanismoen baliozkotasuna egiaztatzeko.

7.1.3 SINADURA BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ERAKUNDE GISA.

- Zerbitzua emateko betebeharrak.

Izenpek Ziurtapen-jardueren deklarazioaren arabera ematen ditu ziurtapen-zerbitzuak, horrek zehazten baititu bere eginkizunak, eragiteko prozedurak eta segurtasun-neurriak. Zehazki, bere gain hartzen du dagozkion betebeharrak guztiak betetzeko ardura, erregistro-erakundeak berariaz egiten dituenak izan ezik, baldin eta halakotzat jarduten ez badu.

Ziurtapen-erakundearen betebeharrak honako hauek dira:

- Zerbitzuak eman dizkion pertsonaren sinadura sortzeko datuak ez kopiatzea.
- Jaulkitako ziurtagiriak adieraziko dituen eta ziurtagiri horiek indarrean dauden edo indarraldia eten edo amaitu den adieraziko duen sistema mantentzea.

- Une bakoitzean indarrean dauden ziurtagiri kalifikatuei eta ziurtapen-jardueren deklarazioei buruzko informazio eta dokumentazio guztia edozein bitarteko segururen bidez erregistratuta edukitzea, gutxienez 15 urtez jaulkitzen direnetik aurrera, harekin egiten diren sinadurak eta gainerako ziurtagiriei dagozkienak 7 urtez egiaztatzeko aukera izan dadin.
 - Sinatzaileak sinadura sortzeko datuak dauzkala ziurtatzea —ziurtagirian jasota dauden egiaztatzeari dagozkion datuak—.
 - Sinadura sortzeko eta egiaztatzeko datuen osagarritasuna bermatzea, baldin eta biak ziurtapen-zerbitzuen emaileak sortu baditu. Ziurtagirian jasotako identitatea bertan jasotako gako publikoarekin modu unibokoan bat datorrela bermatzea.
 - Zerbitzua bizkor eta modu seguruan ematea. Bereziki, ziurtagirien baliozkotasuna kontsultatzeko zerbitzu bizkorra, segurua eta doakoa erabiltzen uzten da, eta ziurtagiriak azkentzearen berri modu seguruan eta berehala emango dela ziurtatzen da, Ziurtapen-jardueren deklarazioan aurreikusitakoaren arabera. Zerbitzua eguneko 24 orduetan erabili daiteke, asteko 7 egunetan.
 - Sinadura elektronikoaren arloan indarrean dagoen legeriak galdatutako eskakizun teknikoak eta langileei buruzkoak betetzea:
 - Ziurtatze-zerbitzuak egiteko beharrezko fidagarritasuna frogatzea.
 - Ziurtagiri bat zer egun eta ordutan jaulki zen edo haren indarraldia noiz amaitu zen zehatz-mehatz zehazteko aukera izan dadin bermatzea.
- Ziurtapen-zerbitzuaren arautze juridikoari buruzko betebeharrak.
- Izenpek bere gain hartzen ditu ziurtagirian zuzenean jasotako edo erreferentzia bidez jasotako betebeharrak guztiak. Erreferentzia bidez jasotzeko, objektu-identifikatzailea edo dokumentuari lotzeko beste moduren bat erantsi behar zaio ziurtagiriari.
 - Izenpe eta eskatzailea, harpideduna edo gakoan edukitzailea eta ziurtagirian konfiantza duen hirugarrena lotzen dituen tresna juridikoa hizkera ulergarrian idatzita dago.
 - Ziurtapen-jardueren deklarazioan ezarritakoa betetzeko aginduak.
 - Ziurtapen-jardueren deklarazio aplikagarriaren adierazpena, hala badagokio, ziurtagiriak publikoarentzat salgai daudela eta sinadura sortzeko nahiz mezuak deszifratzeko gailu segurua erabili behar dela azaltzeko.
 - Gako pribatuak jaulkitzeari, errebokatzeari, berritzeari eta, hala badagokio, berreskuratzeari buruzko klausulak.
 - Ziurtagirian dagoen informazioa zuzena delako adierazpena, non eta harpidedunak kontrakorik jakinarazten ez duen.
 - Harpideduna erregistratzeko erabilitako informazioa biltegitzeko, gailu kriptografiko bat hornitzeko eta informazio hori hirugarrenei lagatzeko adostasuna, baldin eta Izenperen eragiketarako ziurtagiri baliozkoak errebokatu gabe amaitzen badira.
 - Ziurtagiria erabiltzeko mugak.
 - Ziurtagiria nola balidatu jakiteko informazioa, ziurtagiriaren egoera egiaztatzeko betekizuna barne dela, eta ziurtagirian zentzuzko konfiantza izateko baldintzak.



- Aplikatu daitezkeen erantzukizun-mugak, barne dela Izenpek bere erantzukizuna zein erabilerratan onartzen edo baztertzen duen.
- Ziurtagiri-eskaeren informazioa artxibatze aldia.
- Auditoria-erregistroak artxibatze aldia.
- Auziak konpontzeko aplikatu daitezkeen prozedurak.
- Aplikatu daitezkeen legea eta eskumena duen jurisdikzioa.
- Izenpe erakunde publikoren baten edo batzuen ziurtagiri-politikekin bat datorren erakundetzat jo duten, eta, hala badagokio, zein sistemaren arabera.
- Izenperen ondare-erantzukizuna nola bermatzen den.

7.2 ERREGISTRO ERAKUNDEA

Erregistro-erakundeak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- Eskatzailearen, harpidedunaren eta gakoaren edukitzailearen identitatea eta beste zenbait inguruabar pertsonal egiaztatzea —identifikazio-bitartekoetan jasota daudenak edo garrantzizkoak direnak—, prozedura hauen arabera.
- Haiei buruzko informazio eta dokumentazio guztia gordetzea, baldin eta haien jaulkipena, berritzea, errebokazioa edo berraktibazioa kudeatzen badu.
- Izenperi behar den prestasunarekin jakinaraztea errebokazio-eskabideak, bizkor eta modu fidagarrian.
- Izenperi baimena ematea fitxategiak irispidean izateko eta prozeduren auditoria egiteko, bere eginkizunak betetzen eta horretarako behar den informazioa mantentzen.
- Erregistro-erakundeak jaulkitako bitartekoak jaulkitzeko, berritzeko eta errebokatzeko eskabideak eta haiek eraginpean hartzen dituen beste edozein alderdi Izenperi ezagutzera ematea.
- Bitartekoen indarraldian eragina izan lezaketen errebokatzeko arrazoiak behar den prestasunarekin egiaztatzea.
- Identifikazio-bitartekoak jaulkitzea, berritzea eta errebokatzeko kudeatzeko eginkizunak egikaritzean Izenpek ezarritako prozedurak eta gai horretan indarrean dagoen legeria betetzea.
- Behar izanez gero, bere gain hartu ahal izango du sinadura sortzeko (gako pribatua) eta sinadura elektronikoa egiaztatzeko (gako publikoa) prozedura teknikoak gakoaren edukitzailearen eskueran jartzeko eginkizuna.

7.3 ZIURTAGIRIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK

- Izenperi informazio osoa eta egokia ematea, Ziurtagiri-jardueren deklarazioaren eskakizunen arabera, bereziki erregistro-prozedurari dagokionez.
- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak jakitea eta onartzea, baita haiei egiten zaizkien aldaketak ere.
- Ziurtagiriaren bat jaulki eta entregatu aurretik, horretarako adostasuna adieraztea.
- Ziurtagiriaren euskarriak ongi erabili eta gordeko direla bermatzea.
- Ziurtagiria behar bezala erabiltzea eta, zehazki, ziurtagiriak erabiltzeko mugak betetzea.



- Egiaztagutunak arretaz zaintzea, baimendu gabeko erabilerak saihesteko, Ziurtapen-jardueren deklarazioan ezarritakoaren arabera.
- Izenperi eta harpidedunaren ustez ziurtagirian konfiantza duen edonori honako hau jakinaraztea, ezin justifikatuzko atzerapenik gabe:
 - Egiaztagutunak galdu, norbaitek lapurtu edo arriskuan jarri izana.
 - Ziurtagiriaren edukian dauden okerrak edo izandako aldaketak (harpidedunak dakizkienak edo jakin litzakeenak). Aldaketa hori ziurtagiria errebokatzeke arrazoia bada, ziurtagiria errebokatzeke eskatuko du.
- Balio-denbora igaro denean identifikazio-bitartekoa erabiltzeari uztea.
- Gakoen edukitzaileei jakinaraztea zein betebeharrak espezifiko dagozkien.
- Ziurtapen-zerbitzuen ezarpen teknikoak ez monitorizatzea, manipulatzeko edo atzeranzko ingeniartzako ekintzarik ez egitea, aurrez ziurtapen-erakundearen idatzizko baimenik eduki gabe.
- Ziurtapen-zerbitzuen segurtasuna nahita arriskuan ez jartzea.
- Ziurtagirietan jasotako gako publikoak dagozkien gako pribatuak ez erabiltzea ziurtagirik sinatzeko, ziurtapen-erakundea balitz bezala.

Ziurtagiriaren harpidedunak onartzen ditu www.izenpe.eus/dpc webgunean argitaratutako Ziurtapen-jardueren deklarazioaren baldintzak eta dagokion ziurtagiri-politika, www.izenpe.eus webgunean erabilgarri dagoena.

7.4 ZIURTAGIRIEN ERABILTZAILA EGIAZTATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Ziurtagiriaren erabiltzaile egiaztatzaileak honako betebeharrak hauek ditu:

- Eman nahi zaion erabilerarako ziurtagiria egokia den ala ez jakiteko, informazioa iturri independenteetatik jasotzea.
- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak ezagutzea, Ziurtapen-jardueren deklarazioan aurreikusitakoaren arabera.
- Jaulkitako ziurtagiriaren baliozkotasuna edo errebokazioa egiaztatzea. Horretarako, ziurtagiriaren egoerari buruzko informazioa erabiliko du.
- Ziurtagiriaren hierarkiako ziurtagiri guztiak egiaztatzea, sinadura digitalean edo hierarkiako ziurtagiriaren batean konfiantza jarri baino lehen.
- Ziurtagiria erabiltzeko edozein muga gogoan izatea, ziurtagiriaren bertan nahiz egiaztatzailearen kontratuan dagoela ere.
- Kontratu batean edo beste tresnaren batean ezarritako edozein arreta-neurri gogoan izatea, haren izaera juridikoa dena dela ere.
- Ziurtagiriari buruzko edozein gertaera edo egoera anomalo jakinaraztea, baldin eta hura errebokatzeke arrazoitzat jo badaiteke.
- Ziurtapen-zerbitzuen ezarpen teknikoak ez monitorizatzea, manipulatzeko edo atzeranzko ingeniartzako ekintzarik ez egitea, aurrez Izenperen idatzizko baimenik eduki gabe.
- Ziurtapen-zerbitzuen segurtasuna nahita arriskuan ez jartzea.



- Sinadura sortzeko gailu seguruan jaulkitako ziurtagiri kalifikatuen erabiltzailea behartuta dago behar den tresna juridikoan aitortzera sinadura elektronikoko horiek eskuz idatzitako sinaduren baliokideak direla, eIDASen arabera.



8 ERANTZUKIZUNAK

8.3 ZIURTAPEN AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK

Izenperen erantzukizunpekoak izango dira:

- Ziurtagirien indarraldiari edo ziurtagirien indarraldia amaitzeari edo eteteari buruzko kontsulta-zerbitzuan ez sartzeak edo berandu sartzeak edozein pertsonari edo erakunderi eragiten dizkion kalte-galerak.
- Identifikazio-mekanismoaren baliozkotasuna egiaztatzeke zerbitzuan ez sartzeak edo berandu sartzeak edozein pertsonari eragiten dizkion kalte-galerak.
- Halaber, ziurtapen-zerbitzuak emateko behar diren eginkizunak egikaritzeko eskuordetzen dituen pertsonen jardunaren ondorioz hirugarrenen aurrean sor daitezkeen erantzukizun oro hartuko du bere gain. Ildo horretan, 3.500.000 euroko zenbatekoa duen erantzukizun zibileko aseguruua eratu da, ziurtagirien erabilerak eragin ditzakeen kalte-galeren erantzukizun-arriskuari aurre egiteko.

Izenpe zabarkeriaren edo behar den prestasunik ezaren erantzule izango da emandako zerbitzuetan, eta sinadura elektronikoari buruzko legerian ezartzen diren betebeharrak betetzen ez dituzenean, honako kasu hauetan izan ezik, ez baitira bere erantzukizunpekoak izango:

- Ziurtagirietan jasotako informazioek eragindako kalteak, baldin eta haien edukiak funtsean betetzen badu Ziurtapen-jardueren deklarazioa.
- Ziurtagirien eraginkortasuna amaitzeak eragindakoak, baldin eta funtsean betetzen baditu Ziurtapen-jardueren deklarazioan aurreikusitako argitalpen-betebeharrak.
- Identifikazio-bitartekoak bidegabe edo errebotatu ondoren erabiltzeak eragindakoak.
- Ez da sor daitezkeen kalte zuzen edo zeharkakoen, berezien, intzidentziakoen eta emergenteen erantzule izango, ezta eskuratu gabeko irabazien, datu-galeren eta zigorkalteen erantzule ere —aurreikusteko modukoak izan edo ez—, baldin eta horiek ziurtagirien, sinadura digitalen edo Ziurtapen-jardueren deklarazioan eskaintzen edo aurreikusten den bestelako edozein transakzio edo zerbitzuren erabilera, entrega, baimen, funtzionamendu edo funtzionamendu ezarekin lotuta badaude eta erabilera bidegabeak eragin baditu.
- Ziurtagirian ageri diren datuen zehaztasunik ezagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalte-galerak, baldin eta datu horiek dokumentu publiko baten bidez (notariotzakoa, judiziala edo administratiboa) egiaztatu badira, erregistro-erakundeak emandako dokumentuaren kasuan izan ezik.

Ziurtagirietan konfiantza duten harpidedunek edo hirugarren pertsonak dituzten betebeharrak ez betetzeagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalte-galerak.

8.4 ERREGISTRO AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK

Erregistro-erakunde gisara aritzen den Izenpez besteko erakunde oro bere gain hartzen dituen eginkizunak egikaritzen eragiten dituen kalteen erantzule izango da Izenperen aurrean, dagokion lege-tresnak ezartzen duenaren arabera.



8.5 IDENTIFIKAZIO BITARTEKOAREN TITULARRAREN ERANTZUKIZUNAK

- Erregistro-prozesuan egindako faltsutzea edo akats faktikoa.
- Identifikazio-bitartekoa baimenik ez duten pertsonetikiko komunikazio elektronikoetan erabiltzea.
- Identifikazio-bitartekoarekin lotutako sekretua gordetzeko eginbeharra eta hura galtzea, agerraraztea, aldatzea edo baimenik gabe erabiltzea prebenitzeko zentzuzko arreta-neurriak hartzeko eginbeharra ez betetzea.

8.6 HARPIDEDUNAREN ERANTZUKIZUNAK

Bere gako pribatuarekin sortutako sinadura digital baten bidez autentifikatutako komunikazio elektroniko guztien erantzule izango da harpideduna, baldin eta Izenperen egiaztapen-zerbitzuek ziurtagiria baliozkoa dela egiaztatzen badute.

Ziurtagiria galdu egin dela edo lapurtu egin dutela jakinarazten ez den bitartean, Ziurtagin-jardueren deklarazioan ezarritakoaren arabera, harpidedunari dagokio ziurtagiriak baimenik gabe eta/edo bidegabe erabiltzearen erantzukizuna.

Ziurtagiriak onartzearekin batera, erantzukizun hau hartzen du bere gain harpidedunak: kalte gutzietatik salbu uztekoa eta, hala badagokio, kalte-ordainak ordaintzekoa Izenperi, erregistro-erakundeei, eta erakunde erabiltzaileei kalteak, galerak, zorrak, gastu prozesalak edo bestelakoak eragiten dituzten ekintzengatik edo ez-egiteengatik, barne direla IZENPERi, erregistro-erakundeei, edo erakunde erabiltzaileei ziurtagiriak erabiltzeagatik edo argitaratzeagatik dagozkien ordainsariak, erantzukizunak jatorri hau duenean:

- Ziurtagin-erakundearekin lotzen duen tresna juridikoan aurreikusitako terminoak ez betetzea.
- Ziurtagiri digitalak baimenik ez duten pertsonetikiko komunikazio elektronikoetan erabiltzea.
- Harpidedunak egindako faltsutzea edo akats faktikoa.
- Ziurtagirietan funtsezko datuak ez jartzea, zabarkeriaz edo Izenpe, erakunde publiko erabiltzaileak edo harpidedunaren ziurtagirian konfiantza izan dezaketen hirugarrenak engainatzeko asmoz.
- Gako pribatuak gordetzeko eginbeharra eta haiek galtzea, agerraraztea, aldatzea edo baimenik gabe erabiltzea prebenitzeko zentzuzko arreta-neurriak hartzeko eginbeharra ez betetzea.

Izenpe ez da izango harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei harpidedunari dagozkion eginbeharrak ez betetzeak eragindako kalte-galeren erantzule:

- Izenperi edo erregistro-erakundeari informazio egiazkoa, osoa eta zehatza ematea ziurtagirian jaso beharreko edo hura jaulkitzeko edo errebokatze behar diren datuei buruz, baldin eta zerbitzu-emaileak ezin izan badu datuen zehaztasunik eza detektatu.
- Ahalik eta azkarren jakinaraztea Izenperi edo erregistro-erakundeari ziurtagirian islatutako inguruabarren aldaketa oro.



- Arretaz gordetzea sinadura sortzeko datuak, horien konfidentzialtasuna bermatzeko eta horietara inor ez sartzeko edo inork datuak ez ezagutarazteko.
- Ziurtagiria errebokatzeko eskatzea zalantzarik izanez gero sinadura sortzeko datuen konfidentzialtasuna mantentzeari dagokionez.
- Sinadura sortzeko datuak ez erabiltzea ziurtagiriaren balio-epea agortu edo zerbitzu-emailleak baliogabetzearen berri eman ondoren.
- Ziurtagirian jasotzen diren erabilera-mugak aintzat hartzea, eta ziurtapen-zerbitzuen sinatzaileari jakinarazitako eta finkatutako baldintzen arabera erabiltzea.

8.7 ZIURTAGIRIETAN KONFIANTZA DUTEN HIRUGARRENEN ERANTZUKIZUNAK

Ziurtagiri baliogabea edo egiaztatu gabeko sinadura digitalean konfiantza duen hirugarrenak bere gain hartzen ditu horri loturiko arrisku guztiak eta ez dauka inongo erantzukizunik eskatzerik Izenperi, erregistro-erakundeei, erakunde erabiltzaileei edo harpidedunei ziurtagiri eta sinadura horietan duen konfiantzak eragindako gorabeherengatik.

Ildo horretan, Izenpek ere ez du erantzukizunik izango harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalte-galerengatik, baldin eta sinatutako dokumentuen hartzaileak ez badu betetzen arretaz jokatzeko eginbehar hauetakoren bat:

- Ziurtagiria erabiltzeko eta harekin egin daitezkeen transakzioen banakako zenbatekoari buruzko murrizketak egiaztatzea eta kontuan hartzea.
- Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzea.



9 APLIKA DAITEZKEEN AKORDIOAK, ZIURTAPEN JARDUEREN DEKLARAZIOA ETA ZIURTAGIRI POLITIKAK

Aplika daitezkeen akordio, ziurtapen-jardueren deklarazio eta politika guztiak www.izenpe.eus webgunean daude.

10 ITZULKETEN POLITIKA

Izenpek ez du itzultzeko politikarik, eta indarreko legeriari lotuko zaio.

11 DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Izenpek burutzen dituen datu pertsonalen tratamenduei aplika dakiekeen erregimena *Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duen EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAN* (aurrerantzean, DBEO), haren garapen-araudian eta aplika daitekeen indarreko bestelako araudian aurreikusitakoa izango da.

Izenpek helbide honetan dauka tratamenduei buruzko informazioa: www.izenpe.eus/datos

12 APLIKATZEKO LEGERIA. GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK

12.1 Aplikatzeko araudia

Ziurtapen-jardueren deklarazio hau gauzatzeari, egiteari, interpretatzeari eta baliozkotasunari dagozkien alor guztietan aplikatu behar da sinadura elektronikoari buruzko Espainiako legea. Honako hau da dokumentu honi eta ondoriozko eragiketei aplika dakiekeen araudia:

- 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUARENA, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- Identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko Europako 910/2014 Erregelamendua (eIDAS).



12.2 Erreklamazioak eta auzien ebazpena.

Izenpek kontsumoko artekaritza-sistemaren kontrolpean dihardu, aplikagarri zaion legeriak aurreikusten duenaren arabera. Hala, eskatzaileen edo harpidedunen kexuak edo erreklamazioak artatu eta ebatziko ditu, eta hartzen duen erabakia loteslea eta betearazlea izango da alde bientzat, herritarren ziurtagiriei dagokienez betiere.

Xede horretarako, eskatzaileak edo harpidedunak sistema hori onartzen duela joko da dagokion Kontsumoko Artekaritza Batzordean artekaritza-eskaera formalizatzen duen une beretik.

Kontsumoko artekaritza-sistematik at dauden herritarraren ziurtagirien esparruan eskatzaileengandik edo harpidedunengandik sor daitekeen beste edozein auzi dagokion jurisdikzioaren esku geratuko da.

13 ZIURTAPEN AGINTARITZAREN AUDITORIAK, ZIURTAPENAK ETA KONFIANTZAKO ZIGILUAK ETA ERREPOSITORIOAK

Zerbitzuak eraginkortasunez garatzeko eta ezartzeko helburuarekin, Izenpek informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema ezarri du konfiantzako zerbitzuekin erlazionatutako prozesuetarako, betiere ISO 27001 estandarren arabera.

Izenpek, gainera, ETSIren (Telekomunikazioetako Estandarren Europako Institutua) estandarren adierazpenei jarraitzen die, eta honako arau hauen zehaztapen teknikoen arabera lortu du ziurtapena: ziurtagiri kalifikatuak jaulkitzeko EN 319 411-2 arauaren zehaztapen teknikoen arabera; gako publikoko ziurtagiriak jaulkitzeko EN 319 411-1 arauaren zehaztapen teknikoen arabera; eta denbora-zigiluak jaulkitzeko EN 319 422 arauaren arabera. Identifikazio elektronikoari eta barnermerkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko Europako 910/2014 Erregelamenduak (eIDAS) galdatzen dituen arauak dira.

Balidazio hedatuko ziurtagirien politikari (EVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako, erakundearen balidazio-politikari (OVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako eta domeinuaren balidazio-politikari (DVCP) jarraitzen dioten zerbitzari seguruko ziurtagirietarako, CA/Browser Forum-ek onartutako gidei ere jarraituko zaie (www.cabforum.org web-gunean daude eskuragarri).

Ziurtapen guztiak kontsulta daitezke www.izenpe.eus webgunean.

14.3 Aldaketen kontrola _1.0 bertsioa

Eskakizun gehigarriak	➤ <i>1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura (EB) egokitzea.</i>
Eskakizun eguneratuak	
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Erabiltzeko baldintzak. ➤ Harpidedunaren kontratua.

14.4 Aldaketen kontrola _1.0 bertsiotik 1.1 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Dokumentuaren izena eguneratzea. ➤ 2. atala: definizioen atal espezifikoa sartu da. ➤ 3. atala: identifikazio-bitartekoen erabilera bereizi da: autentifikazio gisa eta sinadura gisa. ➤ 4. atala: alderdien betebeharren sailkapen berri bat sartu da. ➤ 5. atala: ziurtapen-agintaritzaren erantzukizunak eguneratu dira.
Argibideak	
Formatu-eguneratzeak.	
Ezabatzeak.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2. atala: ezabatu egin da 2. atala, ziurtagiri motei eta horiek jaulkitzeko erabiltzen diren euskarriei buruzkoa.



14.5 Aldaketen kontrola _1.1 bertsiotik 1.2 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	
Argibideak	➤ Politika betetzeari buruzko argibidea gehitu da 4.3 atalean (ziurtagiri-harpidedunaren betebeharrak)
Formatu-eguneratzeak.	
Ezabatzeak.	

14.6 Aldaketen kontrola _1.2 bertsiotik 2.0 bertsiora

Aurreko bertsioarekiko eguneratzeak	➤ Erabiltzaileari identifikazio-bitartekoak erabiltzeko terminoak eta baldintzak eskuratzeko, dokumentu bakarrean fusionatu dira “PKIren dibulgazio-akordioa (PDS)” (1.0 bertsioa) eta “Autentifikatzeko eta sinatzeko bitarteko elektronikoak erabiltzeko terminoak eta baldintzak” (1.2 bertsioa) dokumentuak.
Argibideak	
Formatu-eguneratzeak.	
Ezabatzeak.	